

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN 31. JAIAREN HASIERA-EKITALDIKO DISKURTSOA

Agintari, hezkuntza-komunitateko kide, gonbidatu eta bereziki Ordizia eta Goierriko ikastetxe publikoetako ikasle, guraso eta irakasleei...

Egun on eta mila esker gaur gurekin egoteagatik Euskal Eskola Publikoari babesa ematen.

Hasteko, gaur, oholtza hau aprobetxatu nahi dut eskerrak emateko EHIGERen izenean hilabete luze hauetan lanean aritu zareten guztioi. Mila esker bihotzez gure hezkuntza-komunitatearen indarra erakusteagatik.

“Publikoa al do” da gaur Ordizian ospatuko dugun Euskal Eskola Publikoaren 31. Jaiaren leloa. Publikoa ari du gaur Ordizian, publikoa ari du egunero gure ikastetxeetan eta publikoa aritzea nahi dugu Euskal Herriko txoko guztietan.

Eta publikoa ari du, gero eta gehiago garelako herri honen etorkizuna publikotasunetik ulertzen dugunok, eskola publikoa gure hezkuntza sistemaren gehiengoan izan behar dela uste dugunok.

Hainbat erronka ditugu datozen urteetarako.

Lehenik eta behin “publiko” hitzaren esanahia berreskuratu behar dugu eta balioan ipini. Orain dela 30 urte eman genuen, gaur bezalako egun batean, zaharkitua geratu ez den “publiko” hitzaren definizioa: GUZTIONA ETA GUZTIONTZAKOA.

Inklusioa eta ekitatea bermatu behar ditu Euskal Eskola Publikoak. Horretarako, aldendu egin behar du eredu merkantilistetik eta hezkuntza gidatu behar duten balioetan zentratu behar da.

Honekin batera, administrazioarekiko duen erabateko mendekotasunetik askatu behar dugu eskola publikoa. Eredu erredukzionista eta gain arautua gainditu behar ditugu, komunitatearen beharrei erantzungo dien eredu baten alde.

Horretarako, ezinbestekoa da gure hezkuntza-komunitateak ahalduntzea, baita ikastetxe publikoen arteko sare indartsu bat osatzea, elkarrekin eta elkarrengatik ikas dezagun.

Euskararen ikaskuntza eta erabileraren normalizazioan paper garrantzitsua betetzera deitua dago eskola publikoa. Lehen helburua bete dugu, hau da, D ereduaren gure ikasle guztiei zabaltzea. Hurrengo erronka da euskarazko ikaskuntzaren kalitatea hobetzea.

Amaitzeko, Euskal Eskola Publikoaren aldeko apustu irmoa eskatzen dizuet erakundeei. Lehenetsi, babestu eta beharrezkoak dituen baliabideez hornitu ezazue guztiona eta guztiontzakoa den Euskal Eskola Publikoa. Eskerrik asko.